

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA:

Gure proiektua Euskal Herrian ekoizten diren elikagaiei buruzkoa da, eta aplikazio bat sortzea erabaki dugu, eta honako izen hau jarri diogu: "Elikaleku". Honen helburua, Euskal Herriko elikagaien ekoizle autonomoek beren produktuak saltzeko bide bat gehiago edukitzea da, bertako produktua bultzatuz. Gaur egun, kanpoan ekoiztutako produktuak kontsumitzen ditugu gehienbat, horrela atzerriko ekonomia sustatuz, eta Euskal Herriko produktu eta ekonomia alde batera utziz.